

2026/3/12

7.5. Errepresio politiko eta soziala

1959tik aurrera frankismoaren errepresio politiko eta sozialak forma aldaketa izan zuen, baina ez funtsezko izaera; are gehiago, Egonkortze Planak (1959) ekonomiaren modernizazioa eta nazioarteko integrazioa ekarri zituen arren, sistema politikoa itxia eta autoritarioa izaten jarraitu zuen. Alderdi politikoek debekatuta jarraitzen zutelara, eta oposizio guztiak legez kanpokotzat jotzen zirela horren froga zen.

Errepresioak
kontra daude

- 1) 1960ko hamarkadan, erregimenak errepresio juridikoki egituratuagoa ezarri zuen. 1963an Ordena Publikoko Auzitegia (TOP) sortu zen delitu politikoak epaitzeko; 1963 eta 1977 artean milaka auzi bideratu zituen oposizioko militante, sindikalista eta ikasleen aurka. Langile mugimendua indartu ahala grebak eta mobilizazioak ugartu ziren, eta gobernua salbuespen-egoerak ezarri zituen hainbat aldiz. Hori dela eta, atxiloketak, torturak eta kartzela zigorrak ohiko bihurtu ziren. Unibertitateetan, ikasle mugimenduen aurkako neurriak, kanporatzeak eta
- 2) poliziaren esku-hartze bortitzak maiz gertatu ziren.

Euskal Herrian eta Katalunian, errepresio politikoak eta kulturalak jarraipena izan zuen. Euskara eta katalanaren erabilera publikoa mugatua egon zen, eta oposizio abertzalea segurtasun arazo gisa tratatu zen. ETAren jardueraren gorakadak errepresioa areagotu zuen; 1970eko Burgosko epaketak nazioarteko protesta zabala eragin zuen eta heriotza-zigorrak ezarri baziren ere, azkenean indultatuak izan ziren nazioarteko presioaren ondorioz.

1973an Carrero Blancoren atentatuak krisi politikoa sakondu zuen, eta, diktaduraren azkenengo urteetan, erregimenak berriro gogortu zuen errepresioa. (1975ean ETA eta FRAPeko bost militante fusilatu zituzten). Hala ere, neurri errepresiboek ez zuten oposizio sozial eta politikoa desagerrarazi. Aitzitik, mobilizazioen hedapenak eta nazioarteko isolamenduak diktaduraren agorpena agerian utzi zuten, 1975ean Francoren heriotzarekin amaituko zen etapa baten azken fasea markatuz.